

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA JUSTICIA E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

RELACIONES INSTITUCIONALES Y  
PORTAVOZ DEL GOBIERNO

ADMINISTRACION LOCAL

EDUCACION

SALUD

DESARROLLO RURAL Y MEDIO  
AMBIENTEASUNTOS SOCIALES FAMILIA  
JUVENTUD Y DEPORTE

CULTURA Y TURISMO

OBRAS PUBLICAS TRANSPORTES Y  
COMUNICACIONESVIVIENDA Y ORDENACION DEL  
TERRITORIO

INNOVACION EMPRESA Y EMPLEO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

## 700.000 euroko laguntza bat onartu da enpleguaren hamabi zentro bereziri laguntza emateko

*Zentro horiek enpleguaren % 95 sortzen dute ezinduk diren pertsonen artean; guztira, 1.300 inguru Foru Erkidegoan*

Lunes, 06 de junio de 2011

Nafarroako Gobernuak gaurko bilkuran enpleguaren hamabi zentro bereziri 703.976 euroko diru-laguntza ematea baimendu du, beren instalazioak modernizatzen. Diru-laguntzen barnean dauden zentroen zerrendan Foru Erkidegoan dauden era horretako zentro gehienak daude, eta ezinduk diren pertsonen artean enpleguaren % 95 sortzen dute; guztira, 1.300 inguru.



Bi pertsona, lantegi batean.

Ondoren, diruz lagundutako zentroak zerrendatzen dira, eta bakoitzari emandako diru-laguntza:

- Enplegurako Nafarroako Aspace Fundazioa: 30.000 euro
- Albornia-mugarik gabeko elkarteak: 70.000 euro
- Tasubin SA: 226.976 euro
- Elkarkide, SL: 80.000 euro
- Corellako Ezindu Fisiko eta Psikikoen Elkarteak: 90.000 euro
- Fevimax-Logística, .SL: 8.000 euro
- Amimet-Canraso: 70.000 euro
- Nasermo, SL: 23.000 euros
- Bidean Laboral Fundazioa: 13.000 euro
- Gupost Navarra SL: 19.000 euro
- Dya Ezinduen Zerbitzuak SL: 2.000 euro
- Lastai, SL Gasolina Zerbitzugunea: 72.000 euro

Ezinduen Gizarteratzearen apirilaren 7ko 13/1982 Legeak sortutako enpleguaren zentro bereziak gizarteratzeko erakundeak dira eta ezintasuna duten pertsonak laneko ohiko mundua esaten zaion horretan

gizarteratzeko oinarrizko elementutzat hartzen dira, maila pertsonaleko egoerengatik (beren ezintasunarekin kontsekuenteak direnak) lan-jarduera bat ohiko baldintzetan ezin dutenean egin.

Lan produktibo bat egitea helburu nagusitzat duten enpresak dira, merkatuaren operazioetan erregulariki parte hartuz; eta helburua diruz ordaindutako enplegu bat ziurtatzea da ezintasuna duten beren langileek behar dituzten egokitzapen pertsonal eta sozialeko zerbitzuak ematea.